

laister berri

001

DANTZARI THIKI EGUNA

002

GOIERRIKO BERTSO
ESKOLAREN XXV.
URTEURRENA

003

ADMINISTRATEL
ZERBITZUA

004

ANTZERKI TOPAKETAK
ERRETIRATU ETA
ADINEKOAK

005

BABES OFIZIALEKO
ETHEBIZITZEN ZOKKETA

006

GOIENIZ ZINE KLUBA

010

EKINTZAK

laister berri

DANTZARI TXIKI EGUNA

Hilaren 13an izango dugu aurten goan ere Dantzari Txikien saioaz gozatzeko aukera Beasaingo kaleetan, Aurtzaka Dantza Taldearen eskutik eta goizeko 11:00etatik aurrera.

Gipuzkoako talde ezberdinek parte hartuko dute egun honetan, aurrez bildu eta ibilaldian parte hartu ondoren, dantza ezberdinen ikustaldia eskainiko digute Loinazko San Martin plazan.



11:45ean.

Beasaingo Kaleetan.

13:00etan

Loinazko San Martin plazan.

17:00etan

Loinazko San Martin plazan.

laister berri

Diseinua:
AH Diseño
Maketazioa:
AH Diseño
Erredakzioa:
AH Diseño
Publizitatea:
AH Diseño
Inprimaketa:
Gráficas
San Martín C.B.
Lega Gordailua:
SS-654/96
Erredakzioa
helbidea:
Martina
Maiz 3/2
bulegoa
T 943 882 257
F 943 027 639
E ah@clickah.com

Beasaingo Kultura
Batzordeak
aldizkari honen
6.500 ale banatzen
ditu hilabetero
Beasaingo
postontzietan.

Eragilea:
kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

GOIERRIKO BERTSO ESKOLAREN XXV. URTEURRENA



Bertso eskolakoei, Beasaingo Udalarekin elkarlanean, Goierriko Bertso Eskolak 25 urte bete dituela eta, *Atera!* Jaialdia antolatu dute inprobisazioaren jaialdia. Mende laurden honetan, bertso eskolatik atera dira hainbat bertsolari, bertsozale, gaijartzaile, epaile... eta bertsoaren munduarekin zerikusirik ez duten zereginetan diharduten hainbat eta hainbat lagun ere bai.

Hori dela eta, honelako ibilbidea ospatzeko, bertso eskolak ekarpenak egiten dituen diziplinen inguruan, jaialdia antolatu dute, baina ez bertso jaialdi: telebistako lehiaketak, kale animazioak, bertsozaleek abestu dezaten espazioak, erakusketak, erreportajeak...

Beasainen ere izango da zer ikusia, Zpeiz Mukaki taldearen emanaldiak, lehiaketak eta atera! Txapelketa ere bai, beste batzuen artean. Inprobisazioaren arloa gustuko duenak, ziur aurkituko duela gustuko ekitaldiren bat, hainbaten artean.

Beasainen egingo diren ekitaldiak:

Atera! jaialdiaren aurkezpena. Igartza Jauregian egingo da, maiatzaren 4an, arratsaldeko 7etan.

Goierri Telebistako Lehiaketa. Finala, Usurben egingo da.

Kale animazioa, Maiatzaren 27an arratsaldeko 6:30ean, Zpeiz Mukaki lapurtar taldeak animatuko ditu herriko kaleak.



laister berri

ADMINISTRATIBEL ZERBITZUA

Beasaingo Udaleren eta Informazioaren gizarterako eta administrazio elektronikorako Europako Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, administrazioa iristeko sarbide berrien ezagutza eta administrazio elektronikoen erabilpena sustatzeko sinatu da.

Oraingoan, eta lehendabiziko aldiz Udal Bibliotekan, terminal bat jarriko da erabilera librekoa non hainbat zerbitzu topatuko dituen udalerritarak; Bertan Udaleko webgunera sartzeko aukera; zerbitzu telematikotara sartzeko aukera; Udal Bibliotekak eskaintzen dituen zerbitzu telematikotara sartzeko aukera; komunikazio zerbitzu orokorrak; eta administrazioaren zerbitzuetara sartzeko aukera esakiniko digu. Gainera, Beasaingo Udaleko erabiltzaileek eta eragileek Bulego elektronikoko horietan egin ditzaketen kontsultak, erabat doakoak izango dira.



laister berri

II. ANTZERKI TOPAKETAK. ERRETIRATU ETA ADINEKOAK

II. Antzerki Topaketakizango ditugu gozagai Usurbe Antzokian arratsaldeko 18:00etan hilaren 7tik 11ra bitartean. Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartearen antolakuntzarekin eta Beasaingo Udalaren eta Beasaingo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartearen laguntzarekin bost antzezlan antzetzuko dituzte Gipuzkoako elkarte ezberdinek.

Maiatzaren 7an, Astelehena

KASINO ZAHARRA Hondarribiko Gizarte Zentroa, "ESTAMOS PERDIENDO UN ALMA".

Maiatzaren 8an, Asteartea

BETI GAZTE, Legazpiko Gizarte Zentroa, "MI REAL GANA".

Maiatzaren 9an, Asteazkena

IKUSI-MAKUSI Oñatiko Gizarte Zentroa, "EN DOS PALABRAS, JM. PACIENTE".

Maiatzaren 10ean, Osteguna

IRRI MAKILA,

Zumarraga eta Urretxuko Gizarte Zentroak "EL SARGENTO CALAMIDADES"

Maiatzaren 11n, Ostirala

OROIMENAK TALDEA,

Donostiako O.N.C.E. ren Gizarte Zentroa, "EL SUEÑO DE UNA NOCHE DE VERANO".



Antolatzaileak: Gipuzkoako Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea.
Laguntzaileak: Beasaingo Udala eta Beasaingo Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartea



Construcciones Amenabar enpresak Foru kalean eraikiko dituen babes ofizialeko 40 etxebizitza jabetzan emateko prozedurari hasiera emango zaio. Esleipen etxebizitzak jabetzan emateko prozedura osoa Beasaingo Udalak egingo du Eusko Jaurlaritzaren gainbegiratupean.

2007ko apirilaren 25ean argitaratu dira onartutakoen behin-behineko zerrendak eta ikusgai jarriko dira alegazioak egiteko Herriarrentzako Harrera Bulegoan (baita www.beasain.net helbidean ere). Bulego horretan bertan (eta baita www.beasain.net helbidean ere) kontsultatu ahal izango da etxebizitza eskaria egina duten beasaindaren zerrenda osoa ere, hau da, Etxebidek bidalitako zerrenda erroldaren baldintza betetzen ez dutenak barne dituenak.

Alegazioak egiteko epea maiatzaren 7an amaituko da eta maiatzaren 24an argitaratuko da zozketan parte hartzeko onartutakoen behin betiko zerrenda. Zozketa Notario aurrean egingo da Beasaingo Usurbe Antzokian 2007ko maiatzaren 30eko arratsaldeko 18:30ean.

Zozketa horretatik, esleipendun titular eta ordezkoren zerrenda aterako da. Ondoren, etxebizitzaren salerosketa kontratuak sinatu aurretik, Eusko Jaurlaritzak esleipendunek eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela egiaztatuko du.

"EL SENTIDO DE LA VIDA"



Maiatzak 3, osteguna.

Sariak: Cannes 1983: Epaimahaiaren sari nagusia

Zuzendaria: Terry Jones.

Gidoia: Terry Gilliam, John Cleese, Graham Chapman, Eric Idle, Terry Jones, Michael Palin.

Argazkia: Peter Hannan, Roger Pratt.

Muntaiak: Julian Doyle.

Aktoreak: Graham Chapman (*kontalaria, obstreta, Harry Blackitt, Livingstone Doktorea, emakume arraroa, gonbidatua*), John Cleese (*Spencer Doktorea, Humphrey Williams, zerbitzaria*), Michael Palin (*Pryfcot Jauna, aita, leiho garbitzailea*).

Film honetan Monty Python taldearen sketch hobenetako batzuk ikus daitezke, zenbait antzezpen musikal selebre ere bai.

Bizitzako etapa ezberdinak agertzen dira bertan: jaiotza, hezkuntza, heldutasuna, gaixotasuna, heriotza... modu surrealista batean.

Terry Jones zuzendaria (Gales, 1942), aktore bezala ere gogora dezakagu, ahots iskanbilatsuko emakumearen paperengatik. ("La vida de Brian" filmean Brian-en ama zen adibidez). Taldea desegin ondoren telebista munduan egin zuen lan gehienbat gidoilari eta aurkezle bezala. "Las aventuras del joven Indiana Jones" telesailako kapitulu bat zuzendu zuen baita ere. Zinema munduan Jim Henson-en "Dentro del laberinto" filmeko gidoilari izan zen.

